

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA

Edateko uraren horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2021eko hirugarren hiruhilekoko errolda

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak edateko uraren horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2021eko hirugarren hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak, azaroaren 2ko 225/2021 Ebazpenaren bidez, errolda hori onetsi du, eta jendaurrean jarri da hamabost (15) egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango dute zergadunen errolda hori, 07:45ak eta 15:00ak bitartean, aldez aurretik hitzordua eskatuta (astelehenetik ostiralera). Zerbitzu hori Amurrioko udaletxean dago (Juan de Urrutia plaza zk.g.; behe solairua). Beren eskubideen alde egokitzat eta komenigarritzat jotzen dituzten azalpen, alegazio eta/edo erreklamazioak ere egin ahal izango dituzte.

Likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. apartatuan.

Zergadunek berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren ebazpen horren aurka, hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Lehendakariari jarriko zaizkio, aurretik xedatutako epeetan, azalpenak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsioak.

Bi hilabetekoa izango da borondatezko aldi ordaintzeko epea; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 15etik 2022ko otsailaren 14ra, bi egun horiek barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2021eko abenduaren 15ean kobratuko dira.

Tasa hori helbideratuta ez dutenek Caixabankek Amurrioko Elexondo kaleko 21ean duten bulegoan ordaindu beharko dute, astelehenetik ostiralera 08:15ak eta 10:15ak bitartean, etxean jasotako faktura eskuetan dutela. Faktura galdu edo jaso ezean, kopia bat egingo da Amurrioko udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Ordainketa ostegunetan bakarrik egin ahal izango da, 08:30etik 10:30era.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotak premiamendu bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak sortuko dituzte, bai eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostuak ere.

Izoria, 2021eko azaroaren 2a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES